

# ATOZKIGU

Eztatoz orain soñu zoliak,  
 auzo-auzoko mendi-egitik,  
 artzai mutillak goiz t'arratsalde  
 zegizkigunak Arichuletik.

Zenbat poztutzen ginduzten ayeak,  
 gegozenian soro-alayan:  
 achur t'achurka gogor batzuek,  
 bestiak berriz makurka layan.

Ta baserriko lan d'arazua  
 bazertokigun arin, leguna,  
 genduenian auzo-entzuna  
 ardizayaren abestichua.

Bañan artzaya joan dan eskeroz  
 mendi ontatik beste aldera,  
 apur bat ere lengo ez gera,  
 itun da muzin ordutik geroz.

Atoz, artzaya, lengo tokira,  
 maite zaituzten anai-erdira,  
 bildu gaitezen illunarrian  
 zure baitako abelechian.

T'inchaur ta sagar, ezti ta gazta,  
 talua t'esne naikua jan-da,  
 bana ditzagun gaur, bigart'etzi...  
 ainbat abesti, ainbat irrentzi!...

DONOSTI